

- Jolasaren izena: **ESKULTOREA ETA ESTATUA**
- Helburuak:
 - Haurren arteko kontaktua landu gidatzerako orduan eta sorbaldan ikutzerakoan
 - Haurren koordinazioa, haurrak “eskulturak” osatzean.
 - Portaera pro-sozialak (laguntza ematea eta aldi berean, jasotzea); “eskultura” laguntza eman behar dio besteari mugitzerako orduan.
- **Partaide kopurua:** Ez dago kopuru zehatzik, baina binaka jarri behar dela kontuan hartu.
- **Materiala:** Baloiak, zintak eta zapiak.
- **Deskribapena:** Bikoteka, bat eskultorea izango da eta bestea estatua. Eskultoreak estatua modelatu egingo du bere hankak, eskuak, burua... mugitzen. Gero papelak aldatuko dituzte eta jolasa berriz hasiko da. Estatua moldatzeko, zapiak, baloiak, zintak...erabili ahalko dute.

